

**Eduardo Eskartzaga Lehen Hezkuntzako**  
**Ikastetxeko balizko Hizkuntza**  
**Normalkuntza Planaren aurre-diseinua**

**Hizkuntza Plangintza ikastaroa (Hiznet)**

**Sakontze Egitasmoa**

**2001-2002 ikasturtea**

**Egilea:** Itziar Urrutia Zorrozuza

**Tutorea:** Lore Erriondo Korostola

## **Aurkibidea**

Sarrera.....	3
Diagnosia .....	8
Lan metodologia.....	8
Ikastetxearen identifikazio datuak .....	8
Ikastetxearen hizkuntza-egoera.....	9
1. Agerpena eta ezagutza.....	10
1.1 Ikastetxeeko estamentuak.....	11
1.2 Liburutegia .....	14
1.3 Hizkuntza-paisaia.....	14
1.4 Udalerrria.....	15
2. Erabilera .....	16
2.1 Idatzizko erabilera.....	16
2.2 Ahozko erabilera.....	17
Ikastetxeeko estamentuak.....	17
Ingurunea .....	22
Ondorioak.....	24
Eranskinak .....	31
1. Normalizazio ekintzak eta baliabideak .....	31
2. Kronograma .....	34
Bibliografia.....	38

## **Sarrera**

### *Eduardo Eskartzaga Ikastetxea*

Ondorengo orrialdeotan Gordexolako Eduardo Eskartzaga Lehen Hezkuntzako Ikastetxeari egokitutako balizko hizkuntza normalkuntza plan baten aurre-diseinua aurkeztuko dut. Ikastetxe hori aukeratzeko arrazoiak hiru izan dira. Lehenengoa, dagoeneko "Ulibarri programa"ren baitan ez dagoen ikastetxea izatea; bigarrena, ikastetxea bera eta ikastetxea kokatua dagoen udalerrira niretzat ezagunak izatea, Gordexolako Udalean bainabil beharrean 2000ko irailaz geroztik. Azkenik, bildutako datuek eta lortutako ondorioek udalerriko ikastetxearen hizkuntza errealitatea hobeto ezagutzea eta Udaletik errealitate horretan modu eraginkorragoan eragitea ahalbidetuko dute.

### *Udaleko Euskara Zerbitzua eta Enkarterriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzua*

Gordexolako Udala Enkarterriko Zerbitzu Mankomunitateko kidea da eta kide gisa jasotzen dituen zerbitzuen artean Euskara Zerbitzua dago. Horrela bada, Euskara Zerbitzu horren esku daude, besteak beste, Udaletako Euskara Planak eta Euskara Biziberritzeko Plangintza garatzea. Niri dagokidanez, "Euskara irakasle, itzultzaile eta dinamiztzaile" lanetan nabil. Lanpostuaren izendapenak berak dioenez nire lana hiru esparru horietara hedatzen da, hots, bertako agintari politikoei eta funtzionarioei euskara irakastea, kanpo harremanetako idazkiak itzultzea eta euskara dinamizatzeko jarduerak antolatzea hizkuntza biziberritzeko plangintzaren ildotik, Enkarterriko Euskara Zerbitzuak antolatzen dituenen osagarri<sup>1</sup>.

Lanpostu berezi hori sortzeak herri agintarien asmo jakin bati erantzun zion. Udalerrian euskara sustatu beharra zegoela pentsatu, eta eurek aurreikusitako beharrezkoak egokitzen zen lanpostua sortu zuten, joera orokorra zein zen kontuan hartu gabe, hots, Euskara Zerbitzua sortzea, gainontzeko herri-administrazioetan legez. Dena dela, kontuan hartu behar dugu lanpostu hori sortzeak, eta urtero-urtero euskararen erabilera sustatzeko ekintzak antolatzeak eta finantzatzek<sup>2</sup> Gordexola bezalako herri batentzat dakarren ahalegina handia dela. Izan ere, Gordexola biztanlez udalerrira txikia da, 1.500 inguru, eta horietatik euskaldunak ez dira %10era iristen. Hortaz, nahiz eta formaz ez dagoen behar bezala antolatua, oraindik zerbitzua sortu zenetik urte bi pasatu ez direnean, hainbat urrats

---

<sup>1</sup> Behin-behineko lan-kontratupeko langilea naiz eta egun erdiko kontratua dut.

<sup>2</sup> Enkarterriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuari egiten dizkion diru ekarpenez gain.

eman dira udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko, eta urriak badira ere jadanik emaitzak nabaritzen hasiak gara, hala ere, oraindik bide luzea dugu jorratzeko.

### *Egoera soziolinguistikoa. Hizkuntz gaitasuna eta erabilera*

Zentzu horretan, hasieratik bertatik nire kezka handienetako bat herritarren artean euskararen erabilera sustatzea izan da. Horretarako Gordexolako belaunaldi berri euskaldun/euskaldunduen hizkuntz gaitasunean, euskararen erabileran eta motibazioan eragiten dituzten faktoreak zeintzuk diren zehazten, eta horietan eragiteko neurriak hartzen saiatu naiz, batik bat euskara ondorengoetaratzearen eta erabileraren esparruetan.

### *Irakaskuntza*

Euskara ondorengoetaratzeari dagokionez, Gordexolan berebiziko garrantzia izan du irakaskuntzak, udalerriko euskaldunik gehienak herriko ikastetxean euskaldunduak baitira. Euskaldunen kopurua teorian urtez urte handituz joan da<sup>3</sup>, baina praktikan euskaldun horiek ez dute euskara erabiltzen, ez baitute erabiltzeko beharrianik sumatzen, gaztelarak hizkuntza funtzio guztiak betetzen dituelako.

Era berean, hizkuntz gaitasunari dagokionez, Gordexolako euskaldunik gehienak erdal elebidunak dira, hots, errazago moldatzen dira gaztelera euskaraz baino, eta horrek neurri handi batean mugatzen du erabilera bera. Euskaraz aritzeko gaitasun txikiago hori faktore askoren ondorioa da, hala nola, guraso euskaldunak ez izatea, udalerrri eta eskualde erdalduna izatea, ama-hizkuntza euskara duen herritarrik ia ez egotea... eta ikastetxeo hizkuntz eredia murgiltze eredu trinkoena ez izatea, hau da, B eredia izatea. Izan ere, ebaluazio neurketek erakutsi dute eredu horretako ikasleen euskararen jakite-maila ez dela A ereduko ikasleena bezain ahula eta murrizta, eta horren beharrian gertatzen direnean badakitela euskaraz ere hitz egiten; hala ere, jatorrasuna falta zaie, eta beren artean gaztelera hitz egiten dute. Hori dela eta, Gordexolako egoera soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta, Udalak murgiltze eredurik trinkoena ezarri beharra zegoela ikusi zuen, neska-mutilek ahalik eta euskarako hizkuntza gaitasun handiagoa lortzearren.

### *Irakaskuntzaren alorrean hartutako neurriak*

Gauzak horrela, 2002ko otsailean, datorren ikasturterako izen-ematea hasi aurretik, Udalak ikastetxean D eredia ezartzearen aldeko sentsibilizazio kanpaina abian jarri zuen.

---

<sup>3</sup> 1981ean euskaldunak %1,4 ziren, 1986an 2,6 eta 1991ean 5,2. II. Mapa Soziolinguistikoa.

Ikastetxe zuzendaritzarekin eta Gurasoen Elkarteko kideekin zenbait bilera izan ziren eta horren ondorioz, Eskola Kontseiluak 2002-2003 ikasturterako 2 eta 3 urtekoen gelan D eredu eskatzea erabaki zuen.

### *Irakaskuntzaren mugak*

Sentsibilizazio kanpaina “euskal mirarian” oinarritu genuen, hau da, unibertsitate aurreko irakaskuntzan irakasteredu elebidunen azken 20 urteetako bilakaera zein izan den azaldu genuen. Hala ere, bagenekien irakaskuntzak bere mugak zituela, izan ere, irakaskuntzak hizkuntz gaitasunean eragin badezake ere, ezin zaiola irakaskuntzari euskararen normalizazioaren erantzukizun osoa utzi.

Jarraian Mikel Zalvide irakaslearen eskolako apunteetan oinarriturik irakaskuntzaren muga horiek zeintzuk diren gogoratuko ditugu:

- *Eskolaren ordutegi mugatua.* Lau urteko haur batek eskolan esna-orduen %27,5 ematen ditu, 8 urtekoak %23,8 eta 15 urteko gazteak %26,8. Gainontzeko denbora eskolako joan-etorrian, etxean etxekoekin, telebista ikusten, lagunekin eta bestelako ikasketetan ematen dute. Gordexolako neska-mutilei dagokienez, eskolaz kanpoko ekintza guzti horiek gaztelera bizi dituzte.
- *Eskolako hizkuntz elkarrekintzaren nolakoa.* B ereduko ikasleek bere esna-orduen %8 baino ez ditu euskara(z) ikasten ematen, eta horietatik gehienak entzuten, irakurtzen eta idazten pasatzen dituzte, irakaslea izaten baita normalean hizketan aritzen dena.
- *Kurrikulumeko gaiak eta hizkera-moduak.* Eskolak helduen lanbide eta jardun-esparru formalizatuertarako prestatu nahi izaten ditu eskola-umeak, gai teknikoek euskaraz aritzeko gai dira, baina ez dira normalean egoera informaletan bizitasunez, aberastasunez jarduteko gai (txisteak kontatzeko, pilotan aritzeko...), batik bat jatorrizko hizkuntza gaztelera badute.
- *Irakasleen eta eskola-lagunen euskara maila.* Nolako euskara darabilte irakasleek eta gainontzeko ikaskideek? Noraino ditu eskola-ume horrek bere gela barneko solaskideak euskaldun? Euskaldun petoak al dira, alegia, bai irakaslea eta bai ikaskideak, ala nola-halako euskaldun motel, erdipurdikoak? Ikus dezagun banan-banan bakoitzaren tipologia.

### *Irakasleak*

- Irakasle euskaldun asko etxetik euskaldun izateaz gainera, hiztun jator eta jaioa da. Gainera gaur egun irakasle talde horretako gehienak, sasoi baten ez bezala, alfabetatuak dira. Irakasle horien gelan dauden ikasleek aukera ezin hobe dute euskara bizia eta jasoa aldi berean berenganatzeko. Baina bada beste irakasle talde bat, etxetik euskara jakin arren, jendaurrean edo eginkizun formaletarako maila jaso baten ahoz zein idatziz zailtasunak dituztenak. Irakasle horiek euskara batuaren arauak landu behar dituzte, eta euren euskara hizkuntzaren goi funtzioetarako egokitu prestakuntza ikastaroen bitartez.
- Badira beste zenbait, txikitan euskara gutxi-asko ikasi ondoren, ikasketak, lagunartea edo lanbidea direla medio bere euskara-maila (batez ere bere mintzamina) trakestua duena. Neska-mutilek nekez jasoko dute irakasle horiengandik hizkera molde jasoa edota eguneroko bizibiderako hizketa-bide arrunta.
- Irakasleen artean badugu baita ere, euskaldun berrien taldea. Batzuek euskalgintzan jardutearen jarduteaz, gorago aipatu ditugun jatorrizko hiztun alfabetatu eta ikasien mailara heltzea lortu dute; baina gehienak berrikitan euskaldundutakoak izanik, hutsune sakonak dituzte irakaskuntzan euskaraz jarduteko. Irakasle horiek etxetik erdaldunak diren umeekin aritzen badira, ume horiek “benetako” euskararekin kontaktu luze-zabalik gabe jarraitzeko arriskua izango dute, B edo D erudian ikasi arren. Eta tartean etxetik euskaldunak diren neska-mutirik suertatuz gero, ume horiek ez dute euren hizkuntz gaitasuna sendotuko eta erregistro formalez aberastuko. Are gehiago, euren hizkuntz gaitasunean aurrera egin beharrean atzera egiteko arriskua izango dute. Hala ere, irakasle euskaldun berriek dituzten mugak ez dira gaindiezinak. Irakasle euskaldunak inguratzea, euren eguneroko jardunean euskara erabiltzeko aukerak bilatzea, edota prestakuntza ikastaroen bitartez herriko euskararekin harremana estutzea badute, hutsune horiek betetzeko.

### *Ikasleak*

- Neska-mutirik eskolan ahozko harreman handiagoa dute ikaskideekin irakaslearekin baino. Nolakoa da ikaskide horien hizkuntza gaitasuna eta zein neurritan darabilte euskara? Gaur egun sarritan gertatzen da D erudian dabilen ikasle euskaldun asko, eskolan hasi eta etxetik erdaldunak diren ikasleekin

elkartzea. Erdara ama-hizkuntza duten ume horiek, nahiz eta D ereduan ikasi, gehienetan erdararako joera izaten dute, eta gaitasun hobea izaten dute euren ama hizkuntzan euskaraz baino. Badira beste ume batzuk euskara ikasi eta handik gutxira, edota aldi berean, gaztelera ikasten dutena. Ume horiek sarritan familiaz kanpoko eremuen eraginez euren erdarazko hizkuntz gaitasuna euskarazkoa baino handiagoa bihurtzen dute. Horrela bada, etxetik euskaldunak diren umeek ere gutxitan aurkitzen dute beraz, eskolan, euskarazko bizigiro eskainiko dieten lagun-talderik.

- Euskaldun elebakar diren umeek eskolan ikasten dute gaztelera, nahiz eta D ereduan ibili. Era berean, jaiok izaten dira beste ikaskideen hizketa moldea berenganatzen eta etxeokaren gainetik lehenesten.

- *Gizartearen eragin moldea.* Lehen esan bezala, eskolak badu eraginik eskola-umeen hizkuntz gaitasunean eta erabileran; hala ere, eskolaz kanpo ematen dute denborarik gehiena. Hori dela eta, umea inguratzen duten gainontzeko esparruak ere kontuan hartu beharrekoak dira. Fishmanen arabera, famili giroan, auzo mailan eta eskola-umeen gizarte-bizitzako elkargiroan saiatu beharra dago neska-mutil horien euskarazko mintza jarduna indartu, hedatu eta aberastu nahi bada.

Gorago esan bezala, Gordexolako neska-mutilek nahiz eta B edo D ereduan ikasi, oro har, ez dute eskolatik kanpo, gurasoekin, aitona-amonekin, lagunartean, kalean, dendan, euskara erabiltzeko beharrik ezta aukera handirik ere; gainera zertan ibili behar dute saiatzen gaztelera bezain ondo menperatzen ez duten hizkuntza batean, gazteleraz erosoago eta denek ulertzeko moduan aritzen badira?

## Diagnosia

Aurreko atalean aztergai dugun Eduardo Eskartzaga ikastetxea inguratzen duten zenbait alderdi jorratu ditugu, hala nola, Udaleko eta Mankomunitateko Euskara Zerbitzuen egitekoa, udalerraren egoera soziolinguistikoa, Euskara Biziberritzeari begira irakaskuntzak duen garrantzia, eta irakaskuntzaren beraren mugak.

Jarraian, gure hausnarketak eta iritzi orokorrak alde batera utzita, ikastetxearen hizkuntz egoera zein den objetibotasunez zehazten saiatuko gara, berariaz lan honetarako jasotako datuetan oinarrituta.

### Lan metodologia

Ikastetxearen hizkuntz egoeraren diagnosirako Ulibarri Programako ikastetxeek darabilten aplikazio informatikoa erabili dugu, *Neur-kareletik, hizkuntza egoeraren popatit brankara* izenekoa, hain zuzen ere.

Datu biketarako irizpideak bertan ageri direnak izan ditugu, hots, dagoeneko bilduta dauden datuak ez ditugu berriz jaso eta iturburu ofizialeko datuak erabiltzerik izan dugunean, datu horiek erabili ditugu. Era berean, alferrikako datuak ez ditugu jaso, eta datuak jasotzerakoan zintzo jokatu dugu eta programak ezarritako arauetara jarraitu gaitzaizkio.

### Ikastetxearen identifikazio datuak

Datuok 2001-2002 ikasturtean jaso dira Gordexolako (Bizkaia) Eduardo Eskartzaga Ikastetxean. Ikastetxea hezkuntza sare publikoan dago eta ikastetxeeko hizkuntz eredua B da, bai Haur Hezkuntzan, bai Lehen Hezkuntzan.

Udalerriko ikastetxe bakarra da eta udalerriko neska-mutil gehienek bertan ikasten dute; dena dela badira banaka batzuk ondoko herrietara (Zalla, Gueñes...) ikastera doazenak ere.


Haur Hezkuntzako 31 ikasle ari dira Eduardo Eskartzaga ikastetxean ikasten eta Lehen Hezkuntzako 25 ikasle. Ikasmaita bakoitzeko ume gutxi dagoenez, taldeak bateratu egiten dituzte, horrela bada, Haur Hezkuntzako 3. eta 4. mailak, eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak, 3. eta 4. mailak, eta 5. eta 6. mailak batera ari dira ikasgela berean.

Datuok nik neuk jaso ditut 2002ko apirilean Yolanda Artetxe zuzendariarekin eta María Asunción Ureta idazkariarekin izandako elkarrizketetan.




### Ikastetxearen Hizkuntz Egoera

Ikastetxearen hizkuntz egoera honako hau da:




	HH	LH
1. Agerpena eta ezagutza indizea (%)	70,32	64,06
2. Erabilera indizea (%)	33,99	33,24
Euskararen presentzia, horren arabera erabilera	OSO TXIKIA	TXIKIA

## 1. Agerpena eta ezagutza



	HH	LH
<b>1. Agerpena eta ezagutza (%)</b>	<b>70,32</b>	<b>64,06</b>
1.1. Ikastetxeeko estamentuak (%)	83,95	75,60
1.2. Liburutegia (%)	15,93	15,93
1.3. Paisaia (%)	50,00	50,00
1.4. Udallerria (%)	15,24	15,24

### 1.1. Ikastetxeeko estamentuak



	HH	LH
<b>1.1. Ikastetxe estamentuak (%)</b>	<b>83,95</b>	<b>75,60</b>
1.1.1. Zuzendaritza (%)	100	100
1.1.2. Irakasleak (%)	100	87,50
1.1.3. Administrazio eta zerbitzuetako langileak (%)	25,00	25,00
1.1.4. Ikasleak (%)	9,68	2,00
1.1.5. Gurasoak (%)	19,35	10,00

### 1.1.1. Zuzendaritza.

Zuzendaritzako kide guztiak oso ongi moldatzen dira ahoz zein idatziz, eta irakaskuntzako 2. Hizkuntz Eskakizunaren jabe dira. Zuzendaritza taldean euskarako agerpena eta ezagutza %100ekoa da.

### 1.1.2. Irakasleak

#### *Haur Hezkuntza.*

Haur Hezkuntzako irakasle guztiak oso ongi moldatzen dira ahoz zein idatziz, eta irakaskuntzako 2. Hizkuntz Eskakizunaren jabe dira. Haur Hezkuntzako irakasleen artean euskarako agerpena eta ezagutza %100ekoa da.

#### *Lehen Hezkuntza.*

Lehen Hezkuntzako sei irakasleetatik bost oso ongi moldatzen dira euskaraz ahoz zein idatziz. Erljioa irakasteaz arduratzen den irakasleak, berriz, euskarazko ezagupen eskasa du. Hori dela eta, Lehen Hezkuntzako irakasleen artean euskarako agerpena eta ezagutza %87,5era jaitsi da.

### 1.1.3. Administrazio eta zerbitzuetako langileak eta ekintza osagarrietakoak<sup>4</sup>

Jantokiko zaindari biak ondo moldatzen dira euskaraz, baina guk dakigula ez dute euskarako titulaziorik. Sukaldaria, autobus gidaria, autobus zaintzailea eta garbitzaile biak erdaldun elebakarrak dira. Monitoreei dagokienez, bata ongi moldatzen euskaraz ahoz zein idatziz, baina besteak ez daki euskaraz. Talde honetan euskararen agerpena eta ezagutza %25ekoa da.

<sup>4</sup> Langile horiei dagokienez, ez dugu bereizketarik egingo Haur eta Lehen Hezkuntzaren arabera, guztiak baitabilta maila batean zein bestean.

### 1.1.4. Ikasleak

#### *Haur Hezkuntza*

*Jatorrizko hizkuntza eta eskola hizkuntza.* Taulan ikus daitekeenez, ikasle gehienek gaztelera dute jatorrizko hizkuntza. Haur Hezkuntzako geletan jatorrizko hizkuntza euskara duten neska-mutilen pisua %9,68koa da.

Maila	Jatorrizko hizkuntza						Eskola hizkuntza	
	Euskara		Gaztelera		Biak		Eredua	Kop.erl.
	Kop.abs.	Kop.erl.	Kop.abs.	Kop.erl.	Kop.abs.	Kop.erl.		
HH3	0	0,00	4	100	0	0,00	B	0,00
HH4	0	0,00	8	80,00	2	20,00	B	10,00
HH5	0	0,00	8	80,00	2	20,00	B	10,00
HH6	0	0,00	5	71,42	2	28,57	B	14,29

#### *Lehen hezkuntza*

Lehen hezkuntzako ikasleei dagokienez, egoera are okerragoa da. Hogeita bost ikasleetatik batek baino ez du euskara, gaztelerekin batera jatorrizko hizkuntza. Lehen Hezkuntzako ikasgeletan euskara jatorrizko hizkuntza duten neska-mutilen pisua %2koa da.

Maila	Jatorrizko hizkuntza						Eskola hizkuntza	
	Euskara		Gazt.		Biak		Eredua	Kop.erl.
	Kop.absl	Kop.erl.	Kop.absl	Kop.erl.	Kop.absl	Kop.erl.		
LH1	0	0,00	5	100	0	0,00	B	0,00
LH2	0	0,00	4	80,00	1	20,00	B	10,00
LH3	0	0,00	4	100	0	0,00	B	0,00
LH4	0	0,00	2	100	0	0,00	B	0,00
LH5	0	0,00	5	100	0	0,00	B	0,00
LH6	0	0,00	4	100	0	0,00	B	0,00

### 1.1.5. Gurasoak

Gurasoen hizkuntza ikasgelaka:

#### Haur Hezkuntza

Ikasleen ehuneko %70etik gora aita eta ama erdalduna dute.

Ikasgela eta Maila	EUSKARAREN EZAGUTZA					
	Aita eta ama euskaldunak dituzten ikasleak		Aita edo ama euskalduna duten ikasleak		Aita eta ama erdaldunak dituzten ikasleak	
	Kop.abs.	Kop.erl.	Kop.abs.	Kop.erl.	Kop.abs.	Kop.erl.
HH3	0	0,00	1	25,00	3	75,00
HH4	1	10,00	2	20,00	7	70,00
HH5	2	20,00	1	10,00	7	70,00
HH6	0	0,00	2	28,57	5	71,42

Gurasoen euskararen ezagutzaren inguruko datuak eta ikasleen jatorrizko hizkuntzaren ingurukoak gurutzatzeak, hizkuntzaren transmisioari buruzko zenbait baieztapen egiteko bidea ematen digu<sup>5</sup>:

- Ikasle bakarra dago HHko 3. mailan aita edo ama euskalduna duena. Ikasle horrek ez du gurasoengandik euskara jaso.
- HHko 4. eta 5. mailan sei ikasle daude guraso biak edo bietariko bat euskalduna dituztena. Horietatik lauk baino ez dute euskara jaso, gaztelaniarekin batera.
- HHko 6. mailan gurasoetako bat euskalduna duten ikasle biek etxean euskara eta gaztelera jaso dituzte.
- Hortaz, gurasoetako bat edo biak euskaldunak dituzten neska-mutilen artean euskararen ondorengoetaratzean %37,5eko etena egon da.

#### Lehen Hezkuntza

Ikasgela eta Maila	EUSKARAREN EZAGUTZA					
	Aita eta ama euskaldunak dituzten ikasleak		Aita edo ama euskalduna duten ikasleak		Aita eta ama erdaldunak dituzten ikasleak	
	Kop.abs.	Kop.erl.	Kop.abs.	Kop.erl.	Kop.abs.	Kop.erl.
LH1	0	0,00	1	20,00	4	80,00
LH2	1	20,00	1	20,00	3	60,00
LH3	0	0,00	0	0,00	4	100
LH4	0	0,00	1	50,00	1	50,00
LH5	0	0,00	0	0,00	5	100
LH6	0	0,00	0	0,00	4	100

<sup>5</sup> Edozelan ere, guraso horien artean egon liteke baten bat haurra jaio ostean euskaldundutakoa. Kasu horretan euskara ez zen izango umearen jatorrizko hizkuntza, baina bai gaur eguneko komunikazio hizkuntza.

Lehen hezkuntzako ikasle batek ditu guraso biak euskaldunak, eta beste hiruk bietariko bat. Lau ikasle horietatik bakar batek du euskara jatorrizko hizkuntza gisa, gaztelarekin batera. Hortaz, euskaren ondorengoetaraztean %75eko etena egon da.

## **1.2. Liburutegia**

Liburutegiaren barne antolakuntza oso xumea da. Ez dute mailegu fitxarik, ezta irakurle fitxarik... erabiltzen. Izenburuaren eta adinaren arabera liburu zerrenda soilak erabiltzen dituzte.

Dena dela, arduradunen esanetan fondoaren zatirik handiena liburutegi nagusian baldin badago ere, eguneroko jardunean ikasgeletako fondoak erabiltzen dituzte, eta irakaslea bera arduratzen da liburu maileguaz. Ikasgeletako fondoa liburu eskuratu berriek osotzen dute eta gehienak euskarazkoak izaten dira. Liburutegi nagusian ikastetxean A eredu ezarrita zegoeneko gaztelarazko liburu mordoa dago, gaur egun erabiltzen ez direnak.

Ikus-entzunezkoei dagokienez, materialaren %88,88 euskarazkoa da. Baliabide informatikoei loturiko euskarazko materialak kopuruz gaztelarazkoak baino gutxiago dira (%30 euskaraz, eta %70 gaztelera).

## **1.3. Ikastetxeko hizkuntza paisaia**

Ikastetxeko paisaia linguistikoa, hots, ikastetxearen izena, ikasgelen errotulazioa, aretoen errotulazioa, iragarki-taulak, oharrak eta propaganda, elebietan dago.

## 1.4. Udalerria<sup>6</sup>

Aplikazio informatikoaren ondorioetarako, Gordexolako euskaldunen kopurua eta euskaldun alfabetatuen kopurua zehazteko, euskaldunak baino ez ditugu kontuan hartu. Kanpoan utzi ditugu, beraz, ia-euskaldunak.

Laburbilduz, 1996ko datu soziolinguistikoetatik honako baieztapenak azpimarratuko ditugu:

- Euskaldunak eta ia-euskaldunak/2 ez dira %17ra iristen.
- Herritarren %98,75k gaztelania du ama-hizkuntza
- Etxean %0,27k darabil euskara. Euskara eta gaztelania darabiltenak %1,58 baino ez dira.
- Euskaldun zaharrak eta jatorrizko elebidunak biztanleen %1,27 osatzen dute.
- Herritarren etxeko hizkuntzaren erabilerari dagokionez, guztiz erdaldundutakoak eta erdaldun zaharrak alde batera utzita, %1,23 baino ez dira euskaraz aktiboak eta %6,46 bietan aktiboak.

<sup>6</sup> Gordexolako biztanleen euskararen jakite-mailaren inguruko datuak 1996ko Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikatik hartuak dira.

### Hizkuntza gaitasuna (> 2 urte).

Guztira	Euskaldunak				Ia-euskaldunak				Erdald.
	Guztira	Alfab.	Erdiz. alfab.	Alfab.gab.	Guztira	Alfab.	Alfab.gab.	Pasib.	Guztira
1.431	142	140	1	1	196	181	10	5	1.093

### Ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntza.

Guztira	Ama-hizkuntza				Etxean erabiltzen den hizkuntza			
	Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat	Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat
1.448	15	1.423	9	1	4	1.421	23	-

### Biztanleriaren hizkuntza-bilakaeraren tipologia (>= 5 urte).


Guztira	Eusk. zahar.	Jator. eleb.	Eusk.berriak	Partz. Eusk.ber.	Partzialki erdaldundua	Guztiz erdaldundua	Erdald. zah.
1.409	12	6	123	181	3	1	1.083

### Biztanleriaren etxeko hizkuntzaren erabileraren tipologia (>= 5 urte).

Guzt.	Euskaldunzaharrak			Jatorrizko elebidunak			Euskaldunberriak			Partzialki euskaldunberriak			Partzialki erdaldundua		
	E A	B A	E P	E A	B A	E P	E A	B A	E P	E A	B A	E P	E A	B A	E P
325	2	5	5	1	4	1	1	10	112	0	0	181	0	2	1

\* E A: Euskaraz aktiboak, B A: Bietan aktiboak, E P: Euskaraz pasiboak

## 2. Erabilera



	HH	LH
<b>Erabilera (%)</b>	<b>33,99</b>	<b>33,24</b>
<b>2.1. Idatzizkoa</b>	<b>31,69</b>	<b>31,69</b>
2.1.1. Ikastetxeeko txostenak (%)	40,00	40,00
2.1.2. Aktak (%)	0,00	0,00
2.1.3. Inprimakiak / Agiriak (%)	38,89	38,89
2.1.4. Bulegoa (%)	30,00	30,00
2.1.5. Posta (%)	31,25	31,25
2.1.6. Baliabide materialak (%)	50,00	50,00
<b>2.2. Ahozkoa</b>	<b>34,76</b>	<b>33,75</b>
2.2.1. Zuzendaritza (%)	55,56	55,56
2.2.2. Irakasleak (%)	100	100
2.2.3. Langileak (%)	8,70	8,70
2.2.4.1. Ikasleak (%)	0,00	0,00
2.2.4.2. Ikasleak trinkotasuna (%)	0,00	0,00
2.2.5. Gurasoak (%)	15,43	1,10
2.2.6. Ingurunea (%)	46,43	46,43

### 2.1. Idatzizko erabilera

Eduardo Eskartzaga ikastetxean euskararen idatzizko erabilera %31,69era mugatzen da.

Hutsunerik handienak sorkuntza testu luzeenetan daude, hots, txostenetan (Ikastetxeeko Curriculum Proiektua, eta Antolakuntza eta Jarduera Araudia) eta aktetan (Klaustroetako aktak, Eskola Kontseiluko aktak, Bileretako aktak -Zuzendaritza, Mintegiak-).

Zuzendaritzako kideen esanetan, testu luze horiek idazteko hobeto moldatzen dira gazteleraz euskaraz baino.



Inprimaki eta agirien sortari dagokienez, joera bi ikusi ditugu; barrurako testuak gaztelera hutsez daude (erregistro liburua eta inbentarioa), ikasleei edota gurasoei zuzendutakoak, berriz, elebietan (matrikula inprimakiak, eskola liburuak, ikasleen fitxak, buletinak, ziurtagiriak, deialdiak eta eskariak).

Branka izeneko aplikazio informatikoan, arlo pedagogikoa osatzen duten materialak elebietan daudela jaso dugu; horrek ez du esan nahi programazioak, azterketak, ebaluaketa txostenak, apunteak, gidaliburuak, testuliburuak eta ikasleen lan-koadernoak hizkuntza bietan daudenik, baizik eta hizkuntza bata ala bestea erabiltzen dela irakasgaiaren arabera (kontuan hartu behar dugu B hizkuntz ereduaz ari garela).

Bulegoari dagokionez, eskaerak hizkuntza batean ala bestean egiten dira, hartzailea kontuan hartuta. Kontabilitatea gaztelera egiten da, datuak jasotzeko orriak hizkuntz horretan baitaude. Zigiluak eta tanpoiak ere aspaldikoak izanik gaztelera hutsean daude. Logotipoa, berriz, euskaraz dago.

Ikastetxeak beste erakunde batzuetara, Eusko Jaurlaritzara, Hezkuntza Sailera edota Lurralde Ordezkaritzara bidaltzen dituen komunikazioak, gaztelera bidali ohi ditu. Zirkularrak, deialdiak, gutunak, oharra eta publizitatea, berriz, elebietan bidaltzen ditu.

## **2.2. Ahozko erabilera**

### ***Ikastetxeeko estamentuak***

#### **2.2.1. Zuzendaritza**

Zuzendaritzako kide guztiek euskaraz badakite ere, erabilera %55,56ra jaisten da, ikastetxean daudenean euren artean, gainontzeko irakasleekin eta ikasleekin ez eze, gurasoekin, administrazio eta zerbitzuetako langileekin eta ekintza osagarrietakoekin ere aritzen baitira hizketan.

#### **2.2.2. Irakasleak**

Irakasleen ahozko erabilera neurtzeko *Mintzagrama* izeneko berriazko aplikazio informatikoa erabili dugu. Aplikazio hori UEUK sortu du Ulibarri programarako, Ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntza Plangintzetarako, alegia.

Irakasleen talde mailako ahozko erabilera neurtzeko irakasle bakoitzari galdesorta bat betetzeko eskatu diogu; bertan irakasle guztien artean norekin aritzen da beti euskaraz eta

norekin beti gazteleraz zehazteko eskatu diogu. Argi utzi diegu eurek jarritako datuak isilpekoak direla, eta horretarako irakasle bakoitzari zenbaki bat esleitu diogu<sup>7</sup>.

Eskatutako datuak jasotakoan, Mintzagrama izeneko aplikazio informatikoan sartu ditugu, eta bertatik honako emaitzak hauek jaso ditugu:

### ***Estatistikak***

Bertan hautatutakoen zerrenda eta hautetsi bakoitzak jasotako “aukeraketa” kopurua agertzen zaigu, bai eta taldeko hiztun bakoitzaren tipologia ere.

The screenshot shows a window titled 'Estatistikak' with a sub-header 'Hautapenak' and 'Aukeraketa Kopurua'. It contains a table with columns 'Hautatua', 'Euskararako', and 'Gaztelerarako'. To the right of the table are four summary boxes: 'Euskararako hiztun aktiboak: 1, 2, 4, 7 eta 8.', 'Gaztelerarako hiztun aktiboa: 12.', 'Hiztun pasiboak: 6.', and 'Hiztun isolatuak: 3, 5, 9, 10 eta 11.'. At the bottom are buttons for 'Aurrera' and 'Inprimatu'.

Hautatua	Euskararako	Gaztelerarako
1	2	0
2	2	0
3	0	0
4	1	0
5	0	0
6	1	1
7	1	0
8	4	0
9	0	0
10	0	0
11	0	0
12	0	9

Eduardo Eskartza ikastetxeeko irakasleen artean bost *euskararako hiztun aktiboak* dira, hots, hiztun horiek euskaraz hautatuagoa izan dira gazteleraz baino.

Hizkuntza baterako ala besterako joerari dagokionez, irakasleen artean euskararako gaztelerarako baino joera sendoagoa dagoela esan dezakegu, *gaztelerarako hiztun aktibo* bakarra dugu eta.


<sup>7</sup> Irakasle taldearen hizkuntza erabileraren neurketarako ikastetxeeko irakasle guztiak sartu ditugu talde berean, hots, ez dugu bereizketarik egin Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen artean, ikastetxe txikia izanik, guztiak aritzen baitira batera.

*Hiztun pasiboa* ere bakarra da, sei zenbakiaz identifikatu duguna, hain zuzen ere. Hiztun hori nahiz eta hautatua izan, hizkuntza batean eta bestean maila berean hautatua izan da. Hiztun horri ez diogu inolako hizkuntzarekiko joera berezirik egozten, neurri batean, taldearen dinamikaren menpe dago eta.

Azkenik bost *hiztun isolatu* ditugu. Hiztun horiek ez ditu inork hautatu, ez hizkuntza batean ez bestean, hortaz, komunikazio saretik at daudela esan dezakegu. Ez dute hizkuntzen erabileran eragiten eta taldearen dinamikatik kanpora daude.

## **Mintzagrama**

Mintzagramak taldearen baitako harreman sareak dira. Taldekide bakoitza sarean izango duen kokalekua, jasotako aukera kopuruaren arabera izango da; zenbat eta aukera kopuru handiagoa izan, orduan eta amaraunaren erdigunetik hurbilago egongo da. Amaraunetik kanpo geratuko dira hautatuak izan ez diren taldekideak.




*Gaztelaren mintzagrama*ri dagokionez, harreman sare hori ahula da eta taldearen izaera kolokan dago, pertsona bakar batek polarizatzen baititu gaztelarazko harreman guztiak. Dirudienez, irakasle hori erdaldun elebakarra da, nahiz eta lankide batekin, 1 zenbakidunarekin, beti euskaraz aritzen dela ziurtatu. Era berean, gaztelararako inoiz hizkuntza horretan hitz egiten ez duela esaten duen irakasle bat aukeratu du (6a). Dena

dela, nahikoa izango zen pertsona horrek bere jokaera aldatzea, talde osoaren azturak erro-errotik aldatzeko. Horren ildotik, aztertu beharko litzateke ea pertsona hori zergatik ez den euskaraz aritzen, hots, euskaraz aritzeko hizkuntz gaitasun nahikoa ez duelako (kasu horretan gaitasun hori hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke) edota ohitura arazoa ote den (horrela izango balitz, harekin estrategia jakinen bitartez ohitura aldaketa landu beharko litzateke). Izan ere, Lore Erriondo irakasleak gogorazten digunez, eskuartean dugun hau ez baita baztertze plana, integrazioarako eta normalkuntzarako plana baizik. Gainera, pertsona hori komunikazio sarean pertsona garrantzitsua da, eta haren hizkuntza ohiturak aldatzearekin, euskararen sarera ekarriko genituzke bera eta berarekin komunikazio harremanak dituztenak.

*Euskararen mintzagramak* 8. subjektuaren inguruko polarizazioa agertzen digu. Pertsona hori bakarra da erdigunean eta hurrengo zirkuluan ez dago inor. Saretik kanpo subjektu asko dago eta gainerakoak azken eta azken-aurreko zirkuluetan pilatzen dira.

Euskararen mintzagramaren joera irekia da; taldekideen arteko harremanen adierazpide grafikoak benetako sarearen itxura du, eta oro har, taldekideen arteko distantziak txikiak dira. Dauden sareak lotuta ageri dira (4-10 bikotea izan ezik), eta taldeko gehienek erraz lor dezakete elkarren arteko komunikazioa. Edonork dauka taldekide den edonorekin ahozko harremanak izateko aukera, zuzenean edota bitartekariei esker. Talde bizia da, beraz.



Azkenik Mintzagramaren emaitzak izeneko leihoaz arituko gara. Bertan dagoeneko aipatu ditugun datuez gain, Hizkuntz Sarearen Indizea ageri zaigu. Indize horrek taldearen hizkuntza-joera eta intentsitatea adierazten digu. Taldearen hizkuntza joera eta intentsitatea hiztun aktiboei datxekie. Hizkuntza batek zenbat eta hiztun aktibo gehiago izan, eta hiztun horiek zenbat eta hautu-kopuru gehiago jaso, orduan eta status hobea izango du mintzaera honek taldearen baitan. Joera hori gaztelaniaren aldekoa izango da zenbakiak zeinu negatiboa badu, eta euskararen aldekoa 0tik 100era bitartekoa bada.

Eduardo Eskartza L.H. Ikastetxe baltzko irakasleen taldeari dagokionez, euskararen aldeko joera dago, baina intentsitatea baxu samarra da, 5,26koa, hain zuzen ere. Dena dela, hizkuntza-sarearen indizeak ez digu euskara zenbatean erabiltzen den adierazten. Horretarako hizkuntza-sarearen indizetik eratorri dugun euskararen erabilera-indizea dugu.

The screenshot shows a window titled "Emitzak" with a grey background. At the top, the title "Mintzagramaren Emitzak" is displayed in a large, bold, black font. Below the title, there are several data fields and summary statistics. On the left side, there are labels for "Ikastetxea:", "Taldea:", "Taldearen Tamaina(n):", "Euskararen Aldeko Hiztun Aktiboak(a):", "Gazteleraren Aldeko Hiztun Aktiboak(b):", "Hiztun Pasiboak(c):", "Isolatuak:", and "Hizkuntza-Sarearen Indizea (Hs):". On the right side, there are input fields for "Hizkuntz Eredua:" and "Data:". The values in the fields are: "Eduardo Eskartzaga ikastetxea", "B", "002 ikasturtea", "12", "5", "1", "5", and "5,26". There are two buttons on the right side: "Aurrera" and "Inprimatu".

Ikastetxea:	Eduardo Eskartzaga ikastetxea	Hizkuntz Eredua:	B
Taldea:		Data:	002 ikasturtea
Taldearen Tamaina(n):	12		
Euskararen Aldeko Hiztun Aktiboak(a):	5		
Gazteleraren Aldeko Hiztun Aktiboak(b):	1		
Hiztun Pasiboak(c):	1		
Isolatuak:	5		
Hizkuntza-Sarearen Indizea (Hs):	5,26		

### 2.2.3. Administrazio eta zerbitzuetako langileak eta ekintza osagarrietakoak

Atal honetan sartu ditugu jantokiko zaindaria, sukaldaria, autobus gidaria, autobus zaintzailea, garbitzaileak eta monitorea. Izendapen beraren azpian jarri baditugu ere, ezin diegu talde izaera egotzi, zenbait kideen artean ez baitago harremanik. Hori dela eta, ezin izan dugu neurtu sasi-talde horren ahozko hizkuntzaren erabilera.

Ikastetxeko arduradunek emandako datuetatik norbanakoen erabilera jaso dugu; estamentu horretan euskararen erabilera %8,70ekoa da.

### 2.2.4. Ikasleak (mintzagrama)

Ikasleen artean ez genuen mintzagrama eraikitzeke galdesorta banatzerik izan. Zuzendaritzako kideen artean hain zegoen argi ikasleek euren artean ez zutela inoiz euskaraz egiten, ze horretan denbora alperrik ez ematea adierazi ziguten eta guk gure lan honetan horrelaxe jaso dugu, hots, ikasleen arteko euskararen erabilera hutsaren parekoa dela.

Nolanahi ere, eta gai honi buruzko Lore Erriondo irakaslearen ekarpena gurea eginez, inoiz aztergai dugun ikastetxean hizkuntz normalkuntza plana ezarriko bada, ikasleen artean euskararen eta gaztelaren erabilaren inguruko inkesta egin beharko litzateke. Izan ere, batzuetan ikasleen hizkuntz azturen inguruko inkesten emaitzak ustekabekoak izaten baitira, eta gainera mintzagramen komunikazio sareei buruz (subjektuen kokapena,...) eman diezagukeen informazioa oso baliagarria izan baitaiteke tutorearentzat, horietan eraginez ikastetxe mailan eragiten delako.

### **2.2.5. Gurasoak**

Atal honetan ikastetxe-guraso arteko komunikazio hizkuntzaz arituko gara. Jasotako datuen arabera, irakasleak euskaraz aritzen dira euskaraz dakiten gurasoekin. Nahiz eta guraso elebidun horietako askok euren seme-alabekin etxean gaztelaraz hitz egiten duten.

Haur Hezkuntzako neska-mutilen gurasoen artean %29 dira elebidunak. Horietatik %15,43 aritzen dira euskaraz ikastetxeko irakasleekin.

Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoen artean %16 dira elebidunak. Irakasle-gurasoen arteko komunikazioan euskararen erabilera %1,10ekoa da.

## ***Ingurunea***

### **2.2.6. Ekintza osagarriak**

2001-2002 ikasturtean ikastetxeak antolatu dituen ekintzen %75 euskarazkoak izan dira (ipuin kontalariak, herri-kirolaren eguna, barnetegia, txotxongiloak eta kantagintza) eta gainontzekoak gaztelaraz (herriko okindegia ikustera eta antzerkera egindako ibilaldiak).

Ikastetxeaz kanpoko erakundeek antolatutako ekintzetan erabilitako hizkuntzari dagokionez, joera desberdinak ikusi ditugu:

- Kultur etxeak antolatutakoak euskarazkoak zein gaztelarazkoak izan ohi dira, eta hizkuntza erabakitzerakoan ez du kontuan hartzen ekintza nori zuzendua dagoen; Urte osoko ikuskizunik nabarmenenak eta harrera onena dutenak, San Joan Gaueko ikuskizuna eta Gabon Gaueko antzezlanak, euskara hutsezkoak izan ohi dira, batik bat helduei (erdaldun elebarreri) zuzenduta badaude ere. Hala ere, inoiz ume eta gazteei zuzendutako ekintzen artean gaztelarazkoak aurkitu ditugu (gaztelarazko filmak...).

- Mendi taldea, kirol elkarte eta herriko abesbatza gaztelaraz aritzen dira. Elkarte horietan aritzen diren gehienek ez baitakite euskaraz. Aisialdi taldea ere, gaztelaraz aritzen da eta antolatzen dituen ekintzak gaztelarazkoak izan ohi dira, nahiz eta kideen artean gehienak euskaldunak izan (aztergai dugun ikastetxean bertan euskaldundutako gazteak<sup>8</sup>).
- Azkenik Udaleko Euskara Zerbitzua dugu, eta honek bai, honek antolatzen dituen ekintza guztiak euskarazkoak dira.

Laburbilduz, esan dezakegu Udalaren menpeko organoek antolatzen dituzten ekintzak euskarazkoak edota elebietakoak izaten direla; gizarte eragileek antolatutakoak, berriz, gaztelera hutsezkoak.

Ikastetxearen eta instituzio/elkarteen arteko harremanei dagokienez, honako datu hauek jaso ditugu:

Ikuskaritzarekin eta Urtuellako Berritzeguneko arduradunekin euskaraz hitz egiteko ohitura dute. Herriko sendagileak eta erizainak, ez dakite euskaraz, eta horiekin gaztelaraz aritzen dira. Hezkuntza Sailarekin, Lurralde Ordezkaritzarekin, Udalarekin eta hornitzaileekin euskaraz zein gaztelaraz aritzen dira, solaskidearen arabera.

---

<sup>8</sup> Udalak aisialdi talde horretako kideak kontratupean izan ditu 2002 urtean herriko umei zuzendutako aisialdiko ekintzak garatzeko. Horrela bada, egoera bitxia gertatu da, ostiraletan euskaraz aritzen ziren neska-mutilekin Udalak antolatutako tailerrak zirelako, eta larunbat arratsaldetan parte-hartzaile berberei gaztelaraz zuzentzen zitzaizkien.

Jakin badakit aipatutako hori ez dela euskararako bikainena, baina gure aurtengo erronka xumea izan da; batetik, begirale horiek euskaraz hitz eginaraztea, kontratuak hala beharturik. Eta bestetik, herriko haurrek ikustea eurentzat erreferentzia gune diren gazteek ere euskaraz badakitela, eta erabili egiten dutela eskolaz kanpoko aisialdiko ekintzetan.



## **Ondorioak**

### **Hizkuntz Plangintzaren beharrezana**

Hizkuntz egoeraren diagnosiak erakutsi digu, badagoela zer aldatu eta zer hobetu Eduardo Eskartzagaga Ikastetxean euskararen egoera normalizatu nahi bada, hots, ikastetxe horrek hizkuntz plangintzaren beharra baduela.

Jarraian, balizkoa hizkuntza plangintza horren oinarria izan litekeen eredu metodologikoa proposatuko dut, eta ondoren nire ikuspegitik plangintza horrek gutxien jota, jaso beharko lituzkeen normalizazio ekintzak.

### **Hizkuntza Plangintzaren eredu metodologikoa**

Eredu metodologikoari dagokionez, eskema egokia dirudi Goodstein-Nolan-Pfeifferrek planteatzen dutena, beti ere gogoan izanik gurea ikastetxe baten garatu beharreko plangintza dela; hortaz, eman beharreko urratsak honako hauek dira:

1. Planifikazioa planeatu:

Ikastetxeeko estamentu guztiak inplikatzeko saiatu behar dugu, udala, gurasoak, irakasleak, zuzendaritza taldea, ikastetxe gainontzeko langileak, ikasleak eurak eta eskualdeko Berritzegunea. Guztiari asmoaren berri eman ostean zein konpromiso-maila lortu ahal izango dugun (lan eta diru aldetik) eta zenbat denbora beharko den zehaztuko dugu. Hori guztia egin ondoren, plangintza taldea osatuko dugu eta ahalmenak emango dizkiogu.

2. Ingurunea aztertu ahalik eta informazio gehien biltzeko.

Neur-kareletik, hizkuntz egoeraren popatik brankara aplikazio informatikoaren bidez jasotakoa, eta plangintza taldeko kideek egindako ekarpenak.

3. Baloreak bilatu (balore pertsonalak, organizazioaren baloreak, lan egiteko moduari buruzko filosofia, organizazioaren kultura eta afektatutako taldeen etorkizuneko interesak aztertu eta zehaztu).

4. Estrategia diseinatu.

- Jarduera lerro nagusiak.
- Arrakastarako adierazleak ezarri.
- Ekintza estrategikoak identifikatu.
- Aurreko guztia sostengatzeko beharko den kultura zehaztu.

5. Auditoria: AMIAREN azterketan oinarrituz, etorkizuneko aurreikuspena aluzinazioa ez dela ziurtatuko gara.

6. Ondoren zuloak identifikatuko ditugu, gure estrategian aurreikusitako ereduaren gauzapenerako behar den jardueraren, eta egungo jardueraren artean dauden zuloak identifikatu, auditorian jasotako datuetan oinarrituz.
7. Ekintza planak integratu: atzemandako zuloak itxi ondoren, estrategia nagusietan oinarritutako plan operatiboak garatu eta koordinatu.
8. Gertakizunak (arriskuak) planifikatu AMIAn oinarrituz.
9. Plana egikaritu.
10. Inplementazioa.

## Hizkuntz normalizazio ekintzak

### *Euskararen ezagutza*

#### 1. Zuzendaritza eta irakasleak

- Erlijioiko irakasle euskalduna edota erlijioiko irakaslea euskaldundu beharko litzateke.
- Irakasle gehienek euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi dute, azken hogeituroko hezkuntza ereduaren bilakaerari egokitzeko. Hori dela eta, komenigarria izango litzateke irakasle horiei etengabeko prestakuntza eskaintzea zuzentasunaren eta aberastasunaren esparruetan.

*Euskara aberatsagoa:* euskalkiak –bizkaiera-, haur jolasak eta abestiak, etnografiaren inguruko ikastaroak<sup>9</sup>...

*Euskara zuzenagoa:* Euskaltzaindiaren arauak, zenbait idazki -ikastetxeko txostenak, bilera aktak...- euskaraz sortzeko beharrezko duten prestakuntza eskaini.

- Era berean, teknologia berriak eta euskararen inguruko prestakuntza eskaini beharko litzateke (irakaskuntzan erabil daitezkeen softwareen berri eman (“Ttantto, “Untxi txikiarekin jolasten”...), interneteko euskarazko bilatzaileak, euskarari eta irakaskuntzari loturiko web orriak identifikatu eta bertako baliabideak erabiltzen ikasi (Euskaltzaindia, HAEE-IVAP, EIZIE, HPS, Ikastolen Elkarte, Megadenda, Jalgi, ...) eta ikastetxeko ordenagailuetan euskarako softwareak instalatu eta erabiltzen trebatu.
- Irakasleen lan-hizkuntza euskara izatea, ahozkoa zein idatzizkoa.

---

<sup>9</sup> Iaz Gordexolako Udalak “Haur jolasak, kantuak eta dantzak” izeneko ikastaroa antolatu zuen. Hogeituroko ikasleek parte hartu zuten, gehienak Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleak. Ikastaroak ikasleen aldeko iritzia izan zuen. Aurten ere, beste ikastaro bat antolatuko dugu iazkoaren ildotik.

## **2. Langileak eta laguntzaileak**

Enkarterrin ez da erraza izango sukaldari edota autobus gidari euskaldunak aurkitzea, normalean helduak izaten direlako eta helduen artean ez dagoelako ia euskaldunik.

Jantokiko laguntzaile, monitore, autobuseko laguntzaile lanetan, berriz, gazteak ibili ohi dira. Langile horiek kontratatzerakoan hizkuntza irizpideak hartu beharko lirateke kontuan, langile horiek hurrekin harreman zuzena dute eta.

Garbitzaileak erdaldunak izan arren, eskola ordutegitik kanpo lan egiten dute, eta neska-mutilekin ez dute harremanik. Hortaz, ez dugu lehentasuntzat joko langile horiek euskalduntzea.

## **3. Ikasleak**

Ikasleei begira honako ekintza hauek jar litezke abian:

- Ahozko adierazpena aberasteko jarduerak antolatu (kantagintza, antzerkigintza, bertsolaritza...).
- Ikasleen artean euskararen erabilera sustatu euskara erabiltzea sarituz.
- Euskara estandarra/jasoa ez eze, euskalkiak, lagunarteko hizkera... ezagutarazi.
- Elkartrukeak udalerrri euskaldunetako hurrekin; beste herri batzuetan euskarak duen bizitasunaz ohar daitezten.
- Euskaren aldeko jaietan parte hartzerantz animatu (Ikastolen aldeko jaiak, Betizu jaiak..).

## **4. Gurasoak**

Ama edo/eta aita euskalduna duten haur hezkuntzako ikasleen %37,5ek ez du euskara jatorrizko hizkuntza gisa jaso. Lehen Hezkuntzara joz gero, ehuneko hori %75era igotzen da. Datu horiek euskararen ondorengoetartzearen inguruan neurriak hartu beharraz ohartarazten gaituzte.

- Guraso euskaldunei seme-alabei euskara transmititzea gomendatuko zaie.
- Euskararekin duen harremana edozein dela ere, guraso guztiek neurriak hartu beharko lituzkete euskara umearen eguneroko jardueratan ahalik eta eremu gehiagotara hedatzeko (zaintzaile euskaldunak aukeratu, umeak euskararen alde motibatu eta umeen aurrean euskararen inguruko ezaxolakeria ez agertu, euskarazko aisialdiko ekintza aukeratu, ...).
- Gurasoak eurak euskara ikastera animatu.

- Irakaskuntza sisteman sartzearen dauden haurren gurasoei zuzendutako komunikazio ekintza zehatzak gauzatu (gutunak, hitzaldiak,...) irakaskuntza eredu desberdinen helburuak azalduz.

## **5. Liburutegia**

Gaur egun liburutegiaren antolaketa nahikoa soila da, ez dute barne-araudirik, ez mailegu fitxarik, ezta irakurle fitxarik ere. Egunen baten bertako arduradunek barne antolaketaren beharrezana sumatuz gero, kontuan hartu beharko materialok euskaraz egon beharko luketela.

Gorago esan dugu, euskarazko eta gaztelarazko material kopuruan dagoen aldea ikastetxea garai baten A eredukoa izatearen ondorioa dela. Liburu horiek guztiak ez dituzte beste barik bota behar, baina aurrerantzean, eta kontuan harturik 2002-2003 ikasturtean D eredua ezarriko dela, euskarazko materialak soilik eskuratu beharko lituzkete.

## **6. Ikastetxeeko hizkuntza paisaia**

Dagoeneko ikastetxearen izena, ikasgelen errotulazioa, aretoen errotulazioa, iragarki-taulak...elebrietan daude. Hortaz, ez dugu horren inguruko normalizazio ekintzarik abian jarriko. Hala ere, etorkizunean ere hizkuntza irizpide hori betetzen dela zaindu beharko litzateke.

## **7. Udalerria**

Ikastetxea udalerrian dago eta lehengaitzat udalerriko neska-mutilak, gurasoak... ditu. Hori dela eta, Gordexolako Udalak eta Eduardo Eskartzaga Ikastetxeak bat etorri behar dute euskara biziberritzeko ahaleginetan, elkarri lagunduz, elkarren berri emanez eta elkar osatuz.

Biziberritze Planaren arabera Gordexolari A1 eredua dagokio. Eredu horrek euskaldun kopuru txikia (%15etik beherakoa) duten udalerrientzako helburuak zehazten ditu. Helburu nagusietako bat, euskaldunen kopurua areagotzea eta dauden euskaldunei zerbitzu batzuk, behintzat, eskaintzea izan liteke.

Horretarako lehenengo eginbeharra Udaleko Euskara Zerbitzua sendotzea izango litzateke, Eusko Jaurlaritzako Euskara Zerbitzuen sarean sartzea, lanpostuaren izaera aldatu behin betiko lanpostu bihurtuz eta ordu gehiagoz hornitu. Era berean, teknikariaren egitekoa

hobeto zehaztu beharko litzateke eta herri-administrazioiko langile eta herri-agintarientzako hizkuntza-gaitasuna, esate baterako, euskaltegien edota auto-ikaskuntza zentroen esku utzi.

Beren-beregi Euskara Biziberritzeko Planari dagokionez, aurreko urteetan egindako bideari eutsi, eta apurka-apurka A1 ereduko udalerrientzat zehazturik dauden helburu guztiak lortze aldera jo beharko litzateke. Eredu horretarako ezarritako lehentasunak kontuan hartuz, helburu estrategikoak euskararen ondorengoetaratzea eta euskararen erabilera sustatzea izango dira.

- **Euskara ondorengoetaratzea**

- Familia bidezko jarraipena***

Euskaraz gaitasuna duten biztanleen %10 horretatik gehienak eskolaren bidez euskalduntako ume eta gazteak dira, hortaz ez dute aukerarik gurasoen etxean bizi diren bitartean euskara erabiltzeko. Hala ere, aukera hori berreskuratzeko aukera dago gazte horiek familia berria osatzen dutenean. Hortaz, Euskara Zerbitzuaren egitekoa honako izango da:

- Sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea euskara bikote hizkuntza eta haur jaioberriaren familiaren hizkuntza izan dadin.

- Irakaskuntza***

80eko hamarkadan herriko ikastetxean B eredia ezarri zen. Harrezkero herriko ume guztiak eredu horretan eskolatu izan dira. Jakin badakigu Gordexolako egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, eredu hori ez dela egokiena umeak euskalduntzeko, hori dela eta 20 urte geroago Udaleko Euskara Zerbitzuaren ekimenez Eskola Kontseiluak Btik Drako eredu aldaketa eskatu du. 2002-2003 ikasturtetik aurrera Gordexolako Eduardo Eskatzarga ikastetxean eskolatzen diren ume guztiak D ereduan egingo dute.

Udaleko Euskara Zerbitzua sortu zenetik urte eta erdi igaro da, eta aldi horretan sano estutu dira Udalaren eta ikastetxe zuzendaritzaren arteko harremanak; horren ondorio garbiak dira ikastetxean euskararen kalitatea hobetzeko eta erabilera sustatzeko abian jarritako hainbat jarduera:

- Esan bezala, Udalak bi eta hiru urteko umeak D ereduan matrikulatzeko kanpainak abian jarri ditu.

- 2001eko iraila eta urria bitartean Udalak “Haur jolas, kantu eta dantzak” ikastaro antolatu zuen herriko zein eskualdeko begirale, irakasle eta gurasoei zuzendua<sup>10</sup>. Ikastaro horren helburua umeekin hain harreman estua duten hiru gizatalde horiei umeen aisialdiari loturiko hainbat ekintza irakastea izan zen umeek aisialdiko ekintzetan euskara erabiltzeari begira.
- Era berean, zenbait erakundek (Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak...) ikastetxeetan euskara sustatzeko kudeatzen dituzten programen eta dirulaguntzen berri eman dio ikastetxeeko zuzendaritzari eta Udalak berak dirulaguntzak eskatu ditu ikastetxean bertan euskara sustatzeko jarduerak garatzeko (Herri-kirolen eguna, ipuin-kontalariak...);
- Udalak ikastetxeetako hizkuntza normalkuntza planen berri eman dio herriko ikastetxeari eta ikastetxeak plangintzaren aurre-diseinu hau gauzatu ahal izateko beharrezko informazioa eman du.

### ***Euskalduntze-alfabetatzea***

Euskalduntze-alfabetatzearen alorrean Udalak honako urratsak eman ditu:

- Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko kanpainak abiatu ditu, eta euskara ikasteko dauden aukeren berri eman dizkie herritarrei
- Enkarterriko Mankomunitateko Euskaltegian ikasten dabilzan Gordexolako ikasleei dirulaguntzak eman zaizkie.
- 2001-2002 ikasturtean euskara ikasteko autoikaskuntzako hamar ikastaro eskaini ditu.
- Atalase-maila gaindituta daukaten herritarrentzat eskaintza egokitua egiteko asmoa dago, euskarazko bideoen mailegu sistema antolatu, hitzaldiak, ibilaldiak...

#### **• Euskararen erabilera**

### ***Administrazioa***

Administrazioaren alorrean aurtengo erronka nagusiak honako hauek izango dira:

- Enkarterriko Mankomunitateko euskara teknikariarekin batera Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana taxutzea, onartzea eta garatzea (2000ko irailetik gaur arte hiru euskara teknikari aritu dira Mankomunitatean eta horrek erabat zaildu du euskara plana abian jartzea).
- Udalak dirulaguntzak banatzeko deialdietan hizkuntz irizpideak ezartzea.

---

<sup>10</sup> Hogei bat ikaslek parte hartu zuten, Eduardo Eskartza ikastetxeeko zuzendaritzako kideak eta eskualdeko ikastetxeetako Haur eta Lehen Hezkuntzako hainbat irakasle tartean izan ziren.

## **Aisia**

Esparru hori gure lehentasunen artean egon da hasieratik bertatik, batetik euskaldun talderik handienari zuzenduta dagoelako (haur eta gazteak), eta bestetik aisialdia gozatzeko unea den neurrian, euskararekin lotzeko jarduera esparru egokia delako.

Aisialdian euskararen erabilera sustatzeari begira abiatutako ekintzen artean honakoak ditugu aipagarrienak:

- Aisialdiko ekintzetan gaztelaniaz aritzen zen herriko gazte talde bat euskarara erakartzeko aukera izan dugu, eta gaur egun horietatik lau kontratupean dabilta Udaleko aisialdi ekintza gehienak aurrera eramaten (tailerrak, udalekuak, ibilaldiak eta egonaldiak...).
- Umeentzako ikuskizunak euskaraz: pailazoak, magoak, ipuin kontalariak, antzerkia...
- Ume zein gazteei Euskal giroan bizitzeko aukera eskaintzeko irteerak eta egonaldiak antolatuko ditugu, eremu euskaldunetara edota ikastolen aldeko jaietara.
- Urtean lautan edo, Gordexolako ume eta gaztetxoei euskarazko liburuen katalogotxoak bidali ohi zaie. Liburuen inguruko hainbat xehetasun ematen da, eta adinaren arabera sailkaturik egoten dira. Ekimen honen helburua euskarazko irakur zaletasuna bultzatzea da.

## **Kultura**

- Euskal kultura zabaltzea eta erdaldun elebakarrak euskararen ingurura hurbiltzea: “Euskararen astea”, eta haur-kantak bilduko dituen CDa grabatzea, herriko abesbatzak kantatuak, besteak beste.

## Eranskina

### 1) NORMALIZAZIO EKINTZAK ETA BALIABIDEAK

EREMUA	HELBURUAK	EKINTZA ETA ESTRATEGIAK	GIZA BALIABIDEAK	ORDU KOPURUA	AURREKONTUA
<b>1. HIZKUNTZA GAITASUNA</b>	Hizkuntza prestakuntza	Euskalduntze ikastaroa (irakasle 1)	Euskaltegia	1.728 ordu (4 urte, 12 urrats, 3 urrats urtean, 2 orduko eskolak egunean)	1.500 euro / herri-erakundearen dirulaguntza
	Trebakuntza:	Zuzentasunaren inguruko ikastaroak (12 irakasle)	HAEE-IVAP / Euskaltegia	30 ordu irakasle bakoitzeko	120 euro x 12 irakasle = 1.440 euro / herri-erakundearen dirulaguntza
		Aberastasunaren inguruko ikastaroak (12 irakasle)	HAEE-IVAP / Euskaltegia	30 ordu irakasle bakoitzeko	120 euro x 12 irakasle = 1.440 euro / herri-erakundearen dirulaguntza
		Teknologia berriak eta euskararen inguruko prestakuntza (12 irakaslerentzat)	Berritzeguneko / Euskara Teknikaria	15 orduko ikastaroa	
		Administrazio-idazkiak euskaraz sortzen irakasteko trebakuntza ikastaroa (12 irakasle) <sup>11</sup>	Berritzeguneko / Euskara Teknikaria	20 orduko ikastaroa	

<sup>11</sup> Ikastaroa irakasle guztientzat ezarri dugu, nahiz eta idazki horiek sortzea zuzendaritza taldeko kideen egitekoa den, zuzendaritza taldean txandaka irakasle guztiak aritzen direlako.



EREMUA	HELBURUAK	EKINTZA ETA ESTRATEGIAK	GIZA BALIABIDEAK	IRAUPENA	AURREKONTUA
<b>2. HIZKUNTZ GAITASUNA, ERABILERA ETA MOTIBAZIOA (IKASLEAK)</b>	Ikasleen artean euskararen erabilera sustatzea	Ahozko adierazpena aberasteko jarduerak antolatu (kantagintza, antzerkigintza, bertsolaritza...) eta euskararen erabilera sustatu sarien bidez	Irakasleak	60 ordu urtean (4 urtean 240 ordu) /Eskola-orduetan	
	Ikasleen artean euskalkiak, lagunarteko hizkera... ezagutaraztea	Eskola-orduetan bizkaieraren ezaugarriak ezagutarazi.	Irakasleak	Eskola-orduetan	
		Elkartrukeak antolatu udalerrri euskaldunetako haurrekin	Zuzendaritza	10 ordu.	Dirulaguntzak
	Euskararen aldeko motibazioa sustatzea	Euskaren aldeko jaietan parte hartzera animatu (Ikastolen aldeko jaiak, Betizu jaiak..).	Irakasleak	Eskola-orduetan	

EREMUA	HELBURUAK	EKINTZA ETA ESTRATEGIAK	GIZA BALIABIDEAK	IRAUPENA	AURREKONTUA
<b>4. HIZKUNTZ GAITASUNA, ERABILERA ETA MOTIBAZIOA (GURASOAK)</b>	Familia bidezko euskararen transmisioa ziurtatzea	Gurasoei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina	Irakasleak / Zuzendaritza taldea	5 ordu urtean (4 urtean 20 ordu)	
	Euskara ahalik eta eremu gehiagotara hedatzea (aisialdia, ikasketetako hizkuntz ereduak..)	Gurasoei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina	Irakasleak / Zuzendaritza taldea	5 ordu urtean (4 urtean 20 ordu)	
	Gurasoen hizkuntz gaitasuna areagotzea	Gurasoei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina	Irakasleak / Zuzendaritza taldea	5 ordu urtean (4 urtean 20 ordu)	

EREMUA	HELBURUAK	EKINTZA ETA ESTRATEGIAK	GIZA BALIABIDEAK	IRAUPENA	AURREKONTUA
<b>4. HIZKUNTZ IRIZPIDEAK</b>	Hizkuntza irizpideak ezartzea eta normalizatzea	Hizkuntza irizpideak zehaztu, adostu, bete eta horien jarraipena egin (datzizko produkzioa, kontratazioa, liburutegiko fondoak, ikastetxeko hizkuntz paisaia...).	Irakasleak / jarraipen batzordea	15 ordu urtean (4 urtean 60 ordu)	

## 2) KRONOGRAMA

EKINTZAK	2002-2003 ikasturtea										2003-2004 ikasturtea										2004-2005 ikasturtea										2005-2006 ikasturtea																																				
	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina																											
Euskalduntze ikastaroa	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X							
Trebakuntza – zuzentasuna						X	X									X	X											X	X																			X	X																		
Trebakuntza – aberastasuna		X	X									X	X											X	X																				X	X																					
Trebakuntza – teknologia berriak eta euskara					X																																										X																				
Trebakuntza – administrazio-idazkiak				X																																												X																			

EKINTZAK	2002-2003 ikasturtea										2003-2004 ikasturtea										2004-2005 ikasturtea										2005-2006 ikasturtea																														
	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina																					
Euskalduntze ikastaroa	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X			
Trebakuntza – zuzentasuna						X	X									X	X										X	X																			X	X													
Trebakuntza – aberastasuna		X	X									X	X										X	X																			X	X																	
Trebakuntza – teknologia berriak eta euskara					X																																								X																
Trebakuntza – administrazio-idazkiak				X																																									X																

X: 1, 2 eta 3 zenbakidun irakasleak

X: 2, 5 eta 6 zenbakidun irakasleak

X: 7, 8 eta 9 zenbakidun irakasleak

X: 10, eta 11 zenbakidun irakasleak.

X: 12. zenbakidun irakasleak (prestakuntza ikastaroetan 4. urtean parte hartzea komeni da, hizkuntza-gaitasun nahikoa duenean)

EKINTZAK	2002-2003 ikasturtea										2003-2004 ikasturtea										2004-2005 ikasturtea										2005-2006 ikasturtea																																	
	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina																								
Ahozko adierazpena aberasteko jarduerak ikasleentzat						X	X									X	X										X	X																			X	X																
Ikasleen artean euskalkiak, lagunarteko hizkera... ezagutaraztea				X	X	X	X	X	X	X				X	X	X	X	X	X	X	X	X				X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X				X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X				
														X	X	X	X	X	X	X	X	X				X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X				X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X			
																											X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X				X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	
Elkartrukeak antolatu udalerrri euskaldunetako haurrekin	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	
Euskaren aldeko jaietan parte hartzera animatu	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

EKINTZAK	2002-2003 ikasturtea							2003-2004 ikasturtea							2004-2005 ikasturtea							2005-2006 ikasturtea																						
	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina				
Familia bidezko euskararen transmisioa ziurtatzea –sentsibilizazio kanpaina	X										X											X											X											
Euskara ahalik eta eremu gehiagotara hedatzea – sentsibilizazio kanpaina			x										x												x											X								
Gurasoen hizkuntz gaitasuna areagotzea – sentsibilizazio kanpaina						x										x												x											x					

EKINTZAK	2002-2003 ikasturtea							2003-2004 ikasturtea							2004-2005 ikasturtea							2005-2006 ikasturtea																					
	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina			
Hizkuntz irizpideak ezartzea eta normalizatzea	X								x		X									x		X									x		X									x	

OHARRA: Jarraipen Batzordea (zuzendaritzako kide bat, irakasleen ordezkari bat eta hizkuntza normalakuntzako teknikaria) hilean behin batzartuko da hizkuntz normalizazio planaren jarraipena egiteko eta hobetu beharrekoak zehazteko.

## Bibliografia

- \_\_\_\_\_ (2001). *Bizkaiko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuak: egungo egoera aztertzeetik koordinazio bilgunea osatzera*. Bilbo, Alkarbide – Bizkaiko Foru Aldundia.
- \_\_\_\_\_ (1990). *Euskal irakaskuntza. 10 urte*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_ (1999). *Euskara biziberritzeko plan nagusia*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ARENAS I SAMPERA, Joaquin; ARENY, María (1997). “Ikastetxeko hizkuntza proiektua”. In: *Bat* 24, 29-52 orr., Donostia, EKB.
- ARENAS I SAMPERA, Joaquin (2001). “La integración lingüística en la escuela de Catalunya de los alumnos hijos de familias inmigrantes”. In: *Hezkuntza Eleanitzaren Nazioarteko Batzarra. Ponentziak*. Getxo, Getxo Linguae.
- ARRUTI LANDA, Iñaki (1997). “Euskararen familia bidezko jarraipena”. In: *Bat* 22-23, 69-110 orr., Donostia, EKB.
- ARTAMENDI, J.A., CENOZ, J., ESPI, M.J., LUKAS, J.F., MADARIAGA, J.M. (1994). *Hezkuntzaren eraginkortasuna eta irakaskuntza elebiduna Euskal Herrian*, Vitoria-Gasteiz, HAEE-IVAP.
- ERRIONDO, Lore; ISASI BALANTZATEGI, Xabier; GARAGORRI, Xabier. (1998) *Hezkuntzaren normalkuntza*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea.
- ERRIONDO, Lore; RODRIGUEZ, Fito; ISASI, Xabier (1993). *Hizkuntza, hezkuntza eta elebiduntasuna*. Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea.
- ETXEBARRIA BALERDI, Felix (2001). “Kulturantzatasuna eta hezkuntza eleanitza Euskal Herrian”. In *Hezkuntza Eleanitzaren Nazioarteko Batzarra. Ponentziak*. Getxo, Getxo Linguae.
- ETXEBARRIA BALERDI, Felix (2001). “Europako politika eta hezkuntza elebiduna”. In: *Hezkuntza Eleanitzaren Nazioarteko Batzarra. Ponentziak*. Getxo, Getxo Linguae.
- GARAGORRI ARZA, Xabier (2001). “Euskararen eta euskal kulturaren, ukipen hizkuntzen eta kulturen, Europako eta Munduko kulturen uztarketa euskal curriculumean”. In: *Hezkuntza Eleanitzaren Nazioarteko Batzarra. Ponentziak*. Getxo, Getxo Linguae.
- IDIAZABAL, Itziar (1991). *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües. Hizkuntza jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Leioa, UPV/EHU.

- ISASI BALANTZATEGI, Xabier; ERRIONDO KOROSTOLA, Lore (2000); *Neurkareletik, hizkuntza egoeraren popatik brankara: Ulibarri programa*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- MEISEL, JÜRGEN M. (1994). *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*. Serie B. Frankfurt. Vervuert.
- MARBA, Teresa (2001). “Unidad y diversidad. Enseñar y aprender lengua(s) en contextos multilingües”. In: *Hezkuntza Eleanitzaren Nazioarteko Batzarra. Ponentziak*. Getxo, Getxo Linguae.
- MATEOS, Txoli (2000). *Ikastola edo eskola publikoa: euskal nazionalismoaren hautua*. Soziologiako Euskal Koadernoak 5. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaz.
- PEREZ, Agustí (2001). “Los programas de educación multilingüe en el sistema educativo valenciano”. In: *Hezkuntza Eleanitzaren Nazioarteko Batzarra. Ponentziak*. Getxo, Getxo Linguae.
- RUIS ESTRADA, M<sup>a</sup> Dolores (2001). “La educación bilingüe y multilingüe y su implicación en un espacio pedagógico intercultural”. In: *Hezkuntza Eleanitzaren Nazioarteko Batzarra. Ponentziak*. Getxo, Getxo Linguae.
- SÁNCHEZ CARRRIÓN, JOSÉ MARÍA (1991). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia, ASJU.
- SOLÉ I CAMARDONS, Jordi (1991). *Soziolinguistika gazteentzat*. Bilbo. Udako Euskal Unibertsitatea.
- ZALBIDE, Mikel (1998). “Normalización lingüística y escolaridad: un informe desde la sala de máquinas”. In: *RIEV* 43-2, 355-424 orr., Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- ZALBIDE, Mikel (2002). “Hezkuntza alorreko hizkuntza normalkuntza”. In: *Esparruz-esparruko mikroplangintzak* (Hiznet ikastaroko eskolako apunteak), Donostia, Eusko Ikaskuntza.